



Inoiz
zorroztuz

Egiaren orduan euskara ez da problema

Joxe AZURMENDI

Egiaren orduan euskara ez da problema inportantea. Udaletxean, gobernarien, Elizaren praxian. Dekoratiho hutsa da. Obligazio sozial bat edo gortesia bat gehitenez ere, etiketari ("abertzale" gara denok, ezta?) zor zaion belauniko bat. Konplitzeko, eta goazen hurrengo puntura.

"Euskal Herrian Euskaraz" taldea holako kasu pila ari da salatzzen, arrazoñ guzti eta erdiz. Baina holaxe gaude, bai: Ezin engaina gintezke.

KASen alternatiba

KASen alternatiban euskara ez da ezertarako aipatzen. Puntu asko kritikatu zaizkio KASen alternatibari, beste asko kritika dakizkioke, kritika asmorik batere gabe hutsune horixe seinalatuko dut nik. Konstatatu bakarrik.

Ez da egia: KASen alternatiba bera irakurri duenak, eta ez periodikoetako sinplifikazioak bakarrik, badaki han euskara ere aipatzen dela. Baina justu horixe da seinalagarria eta signifikatiboa.

"Alternatiba-programa hau ondoko puntuek osatua da:

... 6.3. — Hego Euskadi osoan elibitetasuna ofizialki ezartzea, orain arte pairaturiko hizkuntz eta kultur zapalkuntza luzearen ondorio guztiak ezereztu arte, euskarari lehentasuna emanez. Halaber, maila guztietan nazional kultura surreratzeta".

Zer gertatu da? Urteetan hor egon da KASen alternatiba, gobernari jendeak eta prentsa medio serioek ez bait zuten aipatu ere nahi izaten, urkatuaren etxean

soka aipatzea dagoen baino gehiago. Orain denen ahotan dabil KASen alternatiba: Euskadiko Alderdiak ezezik, Suarezek berak eta Felipe Gonzalezek eta Carrillok ere publikoan aipatzen dizute. Eta KASen alternatiba berez eskematikoaren formulaketa are eskematikoago eta sinplifikatuago batzuk zabaldu dira orain, ez dakit bost ala sei puntutan laburturik: Doala hemendik polizia, etab. Hor euskara ez da sekula ezertarako aipatzen. Egiaren orduan euskara ez da nonbait problema inportantea.

euskal parlamentuan

Harrigarria izan da — pozgarria ere bai alde askotatik — zein erraz eta airoso atera duten Etxenikek eta Labaienek euskararen programa aurrera Parlamentuan.

Zer esan nahi du horrek? Garaitzpen erraz eta seguru bat? "Irabazi dugu?"... Beldur naiz, hauxe besterik ez duela esan nahi: Diotenez, PNVeren Gobernu monokolorari, nazionalistari, burgesari, etab., borroka gogorra egin nahi diote oposizioko Alderdi guztiek, PCE, UCD, AP, EE, PSOE, direnak diren guzti-guztiek. Baina mantxo-mantxo egon dira. Euskararen ez da problema inportan-

tea, bataila haundiak beste nonbait sortuko dira. Inor egiaz preokupatzen ez duen puntua zen hori, erraz pasa da. Inork ez ditu kartutxoak alferrik kastatu nahi izan.

Egiaren orduan euskara ez da problemarik. Politikoentzat beste batzuk dira egiazko problemak.

Irlanda

Polita ere izan zen Etxenikek eta Arostegik Parlamentuan erabili zituzten ezak eta baiak Irlanda zela ta. Arostegik Irlandako modura nahi luke soluzioa Euskal Herrian, Etxenikek inola ere ez.

Eskerrak Etxenikeri, gauza hori garbi utzi zuelako behintzat. Gure beldurra, aspaldi, horixe bait zen: Irlandako bidean sartzen bagara, Estatutuarekin, independentziarekin, inperioarekin berarekin, galdu egingo dugula euskara. Alfer-alferrik izango dira Gobernuaren asmo onak edo kontseilari batzuen borondate eta delibero pertsonalak. Eta beldur hori ez dugu oraindik galdu. Etxenike eta Labaien ez dira euskal Gobernu, Gobernu ez da euskal politika guztia. Eta euskal politikak, Gobernuaren eta oposizioaren eta Alderdi guztien artean ezezik, elizaren, udaletxeen, auzo elkarteen, informazio bideen eta hemen gbiltzan guzti-guztion iharduera guztiez osatzen den euskal politikak, euskararen arloan orientazio firme bat hartzen ez badu, berak itoko duela euskara, pertsegizioak baino gehiago. Optimista izateko arrazoñ gehiegirik ez dago. Orain arte bezala jarraitu behar: Postmista aktibo.